

» KONTZERTUA

Ahots handiak, emozio gutxi



Montserrat Auzmendi del Solar

Ez dakit izenburuarekin dena esanda ematen duen, baina hala bada, ñabardura asko egin behar ditut emanaldi honen inguruan.

Zer esanik ez, Puccini-ren *La bohème*, konpositore toskanarraren opera onenetako bat da, eta publikoaren faboritoenetako bat, hain kantu ederra, orkestrazio egokia eta libreto sinple eta hunkigarria ditu. Beraz, titulu aproposena denboraldiaren hasieraren arrakasta bermatzeko. Eta, dudarik gabe, arrakastatsua izan zen OLBEren 67. denboraldiaren lehenengo saio hau.

Bestalde, txaloaldi errazak lortzeko proposamen honen atzean kalitatea zegoen. Teatro Massimo di Palermoko produkzio klasiko eta soilak opera honen ikuspegi tradizionala eman zuen, baina zinez eraginkorra. Pariseko Quartier Latina bere bizitasun guztiarekin agertzen zen, oso ondo birsortuta. Nahiz eta eszenaratze sinplea izan, edo, agian, konplikaziorik gabeko *mise en scène* honengatik, gure arreta obraren akzioan eta batez ere musikan zentratu zen.

Pedro Halffterek doitasunez zuzendu zuen Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Soinu-oreka ederra lortu zuen eta fintasunez azpimarratu zituen aria guztiak. Bilboko Operaren Abesbatza eta Bilboko Abesbatza Elkartearen umeen korua fin aritu ziren uneoro.

Azkenik, bakarlarietako buruz, zer esango genuke, batean kale, bestean bale. Beharbada han zeuden irakurleek pentsatuko dute ez dela oso justua hau esatea, hain ahots ederrak luzitu baitzituzten. Eta egia da. Baina *La bohème* bezalako obra dramatikoan, non sentimendu eta pultsio guztiak bai musikan

La Bohème

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: Pedro Halffter.

Bilboko Operaren Abesbatza.

Zuzendaria: Boris Dujin.

Bilboko Abesbatza Elkartearen umeen korua:

Zuzendaria: Jose Luis Ormazabal.

Eszena Zuzendaria: Mario Pontiggia.

Bakarlariak: Ainhoa Arteta, Teodor Ilincai, Artur Rucinski, Jessica Nuccio,

David Menéndez, Krzysztof Baczyk

eta Fernando Latorre.

Euskalduna Jauregia.

Urriaren 20a.

bai giroan islatuta dauden, ezin da “ondo kantatu” besterik gabe. Are gehiago, esango nuke garrantzi handiagoa duela emozioa transmititzeak perfekzio bokalak baino. Teodor Ilincai tenore errumaniarrak ahots polita eta boteretsua du, baina adierazkortasuna falta zaio, eta horrexegatik ez zen publikoarengana iritsi. Gure Ainhoa Artetak erraztasunez abestu zuen, bai, baina ukitu engolatua eman zion pertsonaiari eta ez genuen ikusi edo entzun Mimi gazte eta inozo hori. Pena. Jessica Nuccio sopranoak, Musetta-ren rolean, ondo abestu zuen, *Quando m'en vo* aria famatua ederra iritsi zitzaigun. Gainontzeko bakarlariak eraginkortasunez aritu ziren.

Opera honen bukaeran, negar egiten dut beti. Emanaldi honetan, ez. ■



OLBEk antolatutako Puccini-ren “La Bohème”, Euskalduna Jauregian.